

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Guatemala: bakean gerran adina jende akabatu daiteke

200.000 herritarren heriotza eta beste milioi erdiaren ihesa eragin zuen 36 urteko gerra 1996an bukatu zen. Baina bake denboran kriminalitateak gerrateak adina jende hiltzen du. Agintariek gaixtaginen aitzakia egiten duten arren, adituek uste dute garbiketa sozial eta etnikoak jarraitzen duela.



JOY AGNER GAZTE IPARRAMERIKARRA

da unibertsitaterako lan bat prestatzen ari dena. Guatemalan dabil ikerketarako materialen bila. Hiriburuko liburutegia batean eskatutako fotokopiak noiz ekarriko dizkioten zain dago. Emakume edadetu bat da komertzio-jabea, moztaka, ilegorria. Gazteak fotokopiatzea eskatu dituen liburutegia bat *Guatemala: Memoria del Silencio* da, Nazio Batuek babestutako dossieraren emaitza. Emakumea gazteari datorkio: “Ba al dakizu honen egileetako bat asesinatu egin zutela?”. Agnerrek esplikatu dio alderatzen ari dela gerrate garaiko hilketa kopuruak eta oraingoak. “Gauzak berdintsu daude”, esan dio dendariak. “Deus ez da aldatu. Lehen suntsitu egin nahi gintuzten, eta gaur ere bai”.

Honela hasi du Joy Agnerrek bere *The Silent Violence of Peace in Guatemala* artikulua. Maiatzaren 14an publikatu du North American Congress on Latin America erakundearen webgunean. AEBetatik Latinoamerikarekiko elkartasuna bideratzen duen fundazio honek, hala dio aurkezpenean, salatu du bere gobernuak Hego Amerikan demokraziak irauli eta diktadoreak jartzeko egindako ahalegina, eta ondoren 1990eko hamarkadatik politika neoliberalerakin kontinente osoan txirotasuna barreiatu izana.

Agnerrek aho askotatik entzun ditu iritzi berdinak. Mehatxu, lapurreta

bortitz, bahiketa eta hilketak egunero-ko ogia dira Guatemalako herritarren arteko solasetan. Ez da jendeen irudipena, estatistikek berresten dute. 1960tik 1996ra arteko gerra zibilean urtero gertatzen ziren bortizkeriazko heriotzen kopuruak gainditu dira. 1970-1996 epean urtean 5.000 homizidio suertatzen zen Guatemalan, eta 2006koak 5.884 izan ziren.

2001etik 2005era bitartean hilketak %60 gehitu ziren. Emakumeen heriotza bortitzak %127. Ikerlariari Guatemalako Giza Eskubideetarako *Ombudsman* edo Arartekoak aitortu dio horien guztien %10 “garbiketa soziala” bilatzen duten operazioek eragiten dituztela.

Ikara zabaltzen du herritarren artean bortizkeria izugarri horrek. Basakeria zaila da ulertzen eta normaltasunean jasaten. Txarrena da nahasmendu handia dagoela egileei eta errudunei dagokienez. Komunikabideak kriminalitateaz mintzo diren arren, zer-nor dago hiltzaileen atzean?

Aurreko gerran gertatu zena argitzen ahalegindu zen batzordeak *Guatemala: Memoria del Silencio* ikerketa berezian nabarmendu zuen sarraski eta krimen gehienak estatuak egin zituela, armadak, polizia eta hauek kontrolatutako paramilitarrek. Hala ere, urte haietan komunikabideek hilketak nagusiki gerrillari leporatzen zizkieten. “Gaur –idatzi du Agnerrek– esta-

tuak eta komunikabide nagusiek kriminalitatea bandei eta gaixtagin arruntei egozten diete, baina frogak erakusten dute Guatemalako Gobernuak zerikusi handia duela heriotza kopuru gero eta handiago horretan. ‘Genozidio ezitia ari dira burutzen’, indigenen biltzar batean emakume bati entzun genion moduan”.

Gizartea ‘garbitzeko’ taktikak

Estatuaren egituretatik ere jaso du Joy Agnerrek iritzi bera. Giza Eskubideetarako *Ombudsman*aren bulegora joan zenean galdezka, bertako kide batek eskatu baino informazio gehiago ekarri zion, eta gertatzen diren heriotza askoren giltzak esplikatu. “*Gang* edo *maras* famatuen kontua baino gehiago da. Hau estrategikoa da. Hau *social cleansing* da, gizarte garbiketa. Honetan sartuta daude agintariak”.

Bandek edo lapur arruntek eragiten dituzten hilketek ezaugarri nabarmenak dituzte: ahalik eta denbora gutxien edukitzen dute akabatutako gorpua berekin, ezin dute astirik galdu atxilotzea nahi ez badute, gorpua berekin eramateko egiturarik ez daukate... Bandek norbait hiltzen dute edo beren buruak babesteko edo bestela mendeku gisa.

Aldiz, garbiketa soziala edo estatuak babestutako bortizkeria dagoenean tartean, oso ezaugarri ezberdinetakoak dira. Helburua gizarteko



El Canche izeneko erabiltzailearen argazki handian, ezkerreko aldekoan, Guatemalako emakumea manifestazioan. Comité de Unidad Campesina mugimenduaren banderola darama eskuan, herri indigenen erakundetza,

erresistentzia eta borroka aldarrikatuz. 13 milioi guatemalarretatik erdiak baino gehiago zuriak eta 'ladino' edo mestizoak dira, gainerako %40 indigenak. Erretratu txikian preso bat ageri da, "Diesiocho" izeneko 'mara' edo bandakoa dela argitzen duen tatuai handiz apaindua. "Mara Salvatrucha" rekin batera, hau da bandarik indartsuena. Erdialdeko Amerikan kriminalitateak taldeon seilua darama azken hamarkadotan, eta diasporarekin batera esportatu dira mundu osora.

talde jakin bat suntsitzea eta izua zabaltzea dira. Horregatik, sarritan hilotzak modu basatian mutilatuta utziko dituzte, itoaraziak, zatikatuak, jipoi arrastoz beteta edo esku-oinak lotuta. Urteotan Guatemalan asko ugaritu dira mutilaturik edo tortura arrastoei azaldu diren hilotzak. 2004an 22 izan baziren, 2005ean 305etara iritsi ziren.

Hilketok planifikatuak izan ohi dira, eta hiltzaileek jokabide horrekin nahi dute herritarren artean oihartzun handia lortzea. Horretarako dirua eta babes behar dituzte hiltzaileek. 2005ean Guatemalan eraildako biktimen %12 maspilduta eta hil zituzten lekutik urrun aurkitu zituzten. Hau da: 648 gorpuzkin paraje estrategikoetan lagata, beste herritarrek aurkitu zitza-

ten espres utziak. Milaka herritarri egokitu zaio urteotan bidean holakoak aurkitzea, hilabete eta urtetan loa galazteko moduko irudi ikaragarriak.

Estatuak garbiketa etniko eta sozial hau babesteko modurik ximpleena darabil: Guatemalan hilketarik ez da ikertzen. Ez da ikertzaile forenserik. Garbiketa sozialaren katoiak hala agintzen du. Nazio Batuen Erakundeak bidalitako ordezkari batek, Philip Alston-ek, salatu du nagikeria hori. Ez dela bitarteko faltagatik, Guatemala ez baita bere inguruko herrialdeak baino txiroagoa: bera baino pobregoak diren El Salvadorren, Hondurasen eta Nikaraguan polizia, epaile eta auzi gehiago dauzkate.

Gerra garaian bortizkeria nagusiki landa eremuetan erabili bazen, orain

sarraskiak hiriguneetan burutzen dira. Gerran "kontraintsurgentzia" egiteko aitzakian genozidioa eragin zuten militarrek. Soldadu eta paramilitarrek akabatutakoen gorpuzkinak bururik gabe, laurdenkatuta edo kixkalirik agertzen ziren, askotan izugarrikeria horiek biktimari hil ondoren eginda, jendearen izua handitzeko.

Gaur egun berdintsu gertatzen da, baina banda edo *mara* famatuen aitzakian. Helburu berarekin: herritarrek paralizatu, ez daitezela estatuaren kontra oldartu. NBEko aipatu ordezkari Alstonek hau zioen 2007ko txostenan: "Guatemalako Gobernuaren metodoak nekez bereizi daitezke kontraintsurgentziatzko taktiketarik" eta "gaurko politika 1970-1980etan herrialdea hondamendira eraman zuen 'nazio segurtasunaren' dotrina famatu haren parekoa da".

Estatuaren jokabide honen ondorioz, paradoxa dirudien arren, lehen-go gerrillarik ezean orain babes bila gazte askok delako *marelara* jo du. Taldeotan dabilzan edo ibili direnekin mintzatu da Joy Agner, eta horregatik dio: "Dudarik gabe Guatemala hilketen ehuneko handia banden bortizkeriari egotzi behar zaio. Baina *gang* horietara zenbat gizon gazte ez da batu gobernuak berak zuzenka edo zeharka zabaldu duen izuaren erreakzio moduan?"

2007ko azarotik presidente berria dauka Guatemalak, Alvaro Colom. Militarrek eta oligarkiak nahi ez zutena. Indarra beharko du. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
bataurreko graduatu,
ukipen-lente,
audifono eta
eguzkitako
bataurrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Herrandi kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskaltel.net
TEL: 943 420 624

K A L I T A T E A